



ONDARROAKO UDALA



"IKASTURTE HASIERAKO BONUA" 2020 KANPAINA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

1.-HELBURUA. "Ikasturte hasierako bonua" herriko kontsumoa suspertzeko proiektua da. Proiektu hau Ondarroako Udalaren ekimena da, Zatozte Ondarroako Merkatari eta Ostalarien Elkartearekin lankidetzan.

2.- BONUAREN EZAUGARRIAK. Ikasturte hasieran izaten den gastua arintzeko ekimena da. Bonua 18 urte artekoentzat izango da, 18 urtekoak barne. Bonuak 10,00euroko balioa izango du. Udalak guztira 1.240 bonu jaulkiko ditu. 18 urtetik beherako pertsona bakoitzak bonu bakarra eskuratu ahal izango du. Halaber, egindako gastuaren zenbatekoa 10,00 euro edo gehiagokoa izan behar da, eta horrela agertuko da gastuaren faktura sinplifikatuan. Bonuak ezin dira esku diruarekin trukatu eta bonuaren balioari dagokion dirurik ez da bueltatuko.

3.-BONUA ESKURATZEA. Bonuak Ondarroako Turismo Bulegoan eskuratuko dira. 18 urte arteko (18urtekoak barne) pertsona bakoitzak 10 euroko bonu bakarra eskuratu ahal izango du.

Bonuaren onuraduna 18 urte baino gutxiagokoa bada, bonua eskuratu ahal izateko

- Turismo Bulegoan bonua jasotzera joan behar duena adinez nagusia izango da eta bere N.A aurkeztu beharko du
- Bonuaren onuradunaren **FAMILIA LIBURUA** aurkeztu beharko du eta, arrazoiak arrazoi, familia liburua izan ezean jaiotza ziurtagiria aurkeztu beharko du

Bonuaren onuradunak 18 urte beteta baditu

- Turismo Bulegoan bonua jasotzera joan behar duena adinez nagusia izango da eta bere N.A aurkeztu beharko du
- Bonuaren onuradunaren N.A aurkeztu beharko du

Bonuak eskuratzeko epea 2020 10 17 artekoa da. Salbuespen gisa, erakunde antolatzaileak epe hori luza lezake

4.- BONUAK ERABILTZeko EPEA. Bonua 2020 10 17 arte erabili ahalko da, kanpaina honi atxikitako dendetan (erakusleihoan kanpainako kartela izango dute). Hala ere, beharizanen arabera, erakunde antolatzaileak epe hori luzatu ahal izango du.

5.- SALTOKIEK PARTE HARTZEKO BALDINTZAK. Saltokia Ondarroan daukan pertsona fisiko edo juridikoa izatea eta bere jarduera nagusia JEZaren (Jarduera Ekonomikoaren Zerga) ondorengo epigraferen baten baitan sartzea

474 ARTE GRAFIKOAK (INPRIMAKETA GRAFIKOA)

651 OIHALGINTZA EKOIZKINEN, JANTZIGINTZA, OINETAKOGINTZA, LARRU ETA LARRUKI ARTIKULUEN TXIKIZKAKO SALMENTA..

652.2 DROGERI LURRINDEGI ETA KOSMETIKA GAIEN TXIKIZKAKO SALMENTA, GARBIGAIENA, PINTURENA, BARNIZENA, HALA NOLA, KIMIKA EKOIZKINENA.

653.1 ALTZARIEN TXIKIZKAZKO SALMENTA

653.2 MATERIALE ETA APARATU ELEKTRIKOEN, ELEKTRONIKOEN ETA ETXEKO ELEKTRIKOA EZ DEN BESTE ENERGIAREN BATEZ ERAGINDAKO ETXEKO APARATUENA ETA SUKALDEKO ALTZARIENA.

653.3 SUKALDEKO ONTZITERIAREN, BURDINGAIEN, APAINGAIEN, OPARIGAI EDO ERREKLAMOGAIEN (BISUTERIA ETA ELEKTRAGAILUAK BARNE) TXIKIZKAKO SALMENTA



ONDARROAKO UDALA



659.3 MEDIKUNTZA, ORTOPEDIA, OPTIKA ETA ARGAZKIGINTZARAKO APARATU ETA TRESNERIAREN TXIKIZKAKO SALMENTA.

659.4 LIBURU, ALDIZKARI ETA PAPERGAIEIEN ETA BULEGOGAIEIEN TXIKIZKAKO SALMENTA, BAITA MARRAZKIGINTZAKO ETA ARTE EDERRETAKO TRESNA ETA LANABESENA

659.5 BITXIGAIEIEN, ERLOJUGINTZAKO GAIEN, ZILARGINTZA ETA BISUTERIGINTZAKO GAIEN TXIKIZKAKO SALMENTA

659.6 JOSTAILUEN, KIROLGAIEIEN, KIROL JANTZIEN, OINETAKOEN ETA ZORONGEN TXIKIZKAKO SALMENTA, HALA NOLA ARMA, KARTUTXO ETA PIROTEKNI GAIENA

691 ETXERAKO, AUTO IBILGAILUENTZAT ETA BESTE KONTSUMO ONDASUN ZENBAITETARAKO ARTIKULU ELEKTRIKOEN KONPONKETA

887 MAKILLATZAILEAK ETA ESTETIZISTAK

972.1 EMAKUME ETA GIZONEZKOEN ILE-APAINDEGIAK

972.2 APAINKETARAKO ARETO ETA INSTITUTUAK, ETA ESTETIKAKO KABINETEAK

973 ZERBITZU FOTOGRAFIKOAK ETA FOTOKOPIAK

6.- KANPAINARA ATXIKITZEA. Kanpaina honetara atxikitzeko epea 2020 09 16tik, kanpaina bukaera arte. Kanpaina parte hartu nahi dutenek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute

- Kanpaina atxikitzeko eskaera
- EJRen alta dokumentuaren kopia

Dokumentazioa Zatozte Elkartearen bulegoan (Kantoipe z/g) entregatu beharko da (9:30-14:00).

7.- ESTABLEZIMNEDUEK BONUAK ETA AGIRIAK ENTREGATZEA. Kanpaina atxikitako enpresek bonu originalak, bonua erabiliz egindako erosketari dagokion faktura sinplifikatua eta oinarri hauetako I. Eranskina behar den moduan beteta entregatu beharko dituzte. Agiriak entregatuko dira Zatozte Elkartearen bulegoan (Kantoipe z/g) (9:30-14:00). Horretarako, epea 2020 10 19tik 2020 10 30era (biak barne) izango da

8.- SALTOKIEI BONUAK ORDAINTZEA. Bonuak entregatu ondoren, Ondarroako Udalak bonu horiek berrikusi eta balidatu egingoko ditu.

Akatsak antzemanaz gero, establezimenduko arduradunari 10 egun balioduneko epean hauek zuzentzeko eskatuko zaio.

Eskabideak aurkezteko edo zuzentzeko epea amaitu eta gehienez ere 30 eguneko epean ordainduko dira, eskabidean zehaztutako kontu korrontearen zenbakian.

9.- ATXIKITAKO SALTOKIEN BETEBEHARRAK. Kanpaina atxikitako saltokiek ondorengo betebeharrak bete beharko dituzte:

- Faktura sinplifikatu bakoitzagatik (zenbatekoa 10,00 euro edo gehiagokoa izan beharko dena) bonu bakarra jasotzea.
- Oinarri hauetan zehaztutako epeak betetzea.
- Erakusleioan (edo ikusteko moduko tokian) kanpainako ikurrak jartzea.
- Kontsumitzaileei kanpainaren ezaugarrien berri ematea.
- Ondarroako Udalarik eskatutako informazio eta agiri guztiak ematea, kanpainako baldintzak behar bezala bete direla egiaztatzeko.

10.- EZ BETETZEAK. Oinarri hauetan zehaztutako epeak eta baldintzak betetzen ez badira, sortutako edozein ordainketa eskubide galduko da.

11.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA. Kanpaina honetan lortutako datuak Ondarroako Udalaren titulartasuneko fitxategietan gordeko dira, kanpaina honetako baldintzak aplikatzeko soilik.



ONDARROAKO UDALA



Atxikitako establezimenduek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, helbide elektroniko honetara mezu bat bidalita: orokorra@ondarroa.eus, 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

Ondarroan, 2020ko irailaren 15ean

IDAZKARIA

JOSE URRAZA ALDAYTURRIAGA

ONDARROAKO UDALA

IDAZKARITZA

JOSE URRAZA ALDAYTURRIAGA

N.A.: 78.928.481-W

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL

SECRETARY GENERAL